20. IZEN-ABIZENAK:_____

2022ko martxoaren 21a, asteartea

Eguneroko maitea:

Denboraldi batean ez dizut gehiago idatziko. .

Ostiralean, noten boletina bidali ziguten etxera. Boletinean, euskara irakasleak idatzi zidan gehiago irakurri behar dudala.

Amak esan dit egunkari eta aldizkarietako artikulu ezberdinak emango dizkidala irakurtzeko. Beraz, pentsatu dut egunerokoan pegatuko ditudala. Horrela egunerokoa erabiliko dut, baina beste modu batean.

Beno, gaurko eguna kontatuko dizut, pixka bat.

Euskara klasean irakasleak galdetu digu pasabidean dauden "HITZEKIN" papelak zer diren. Nik ez nekien, baina batzuk esan dute Korrikaren **lelo** berria dela. Gero, gaiari buruz pixka bat hitz egin dugu. Batzuk pila bat dakite, beraz, datorren astean horri buruzko artikuluren bat irakurriko dut, gehiago jakiteko.

Irakasleak aurtengo abestia ere jarri digu. Hasieran ez zait ezer gustatu. Aurreko korrikakoa askoz animatuagoa zela uste dut, eta hau lasaiegia da. Hala ere, aukera bat emango diot, ea behin eta berriz entzunda gustatzen zaidan. **Sarritan** gertatzen zait hori abestiekin.

Gero, patiora jaitsi gara, eta **izoztuta** geratu naiz. Badirudi oraindik negua dela, eta udaberrian gaude! Pixka bat berotzeko, lasterketa bat egin dugu. Halako batean, estropezu egin dut, eta **buruz erori** naiz lurrera; **zorabiatu** eta **konortea galdu** dut. Lurrean nengoela norbait entzun dut "Amets, Amets… ireki begiak" esaten. Nire irakaslea zen; zelako beldur aurpegia zeukan!

Badaezpada nire aitari deitu dio, eta larrialdietara joan gara. Baina guztia ondo dago; **urradura** bat besterik ez dut.

Beno, banoa afaltzera, deika ari zaizkit eta. Hurrengora arte!

LIVEWORKSHEETS

20. IZEN-ABIZENAK:_____

Behin testua irakurrita, bilatu galderen erantzuna testuan, eta azpimarratu. Ondoren, erantzun galderak.

1. **Zer esan dio amak boletinak etxera iritsi ondoren?**

.....

.....

2. **Zeri buruz hitz egin dute Euskara klasean?**

.....

.....

3. **Zertarako irakurriko du Korrikari buruzko artikulu bat?**

.....

.....

4. **Zergatik ez zaio abestia asko gustatu?**

.....

.....

5. **Zer gertatu zaio patioan lasterka ari zenean?**

.....

.....

6. **Testuan beltzez dauden hitz hauek zer esan nahi dute. Idatzi sinonimo bat, edo itzulpena**

- Lelo:_____
- Sarritan: _____
- Izoztuta: _____
- Buruz erori: _____
- Zorabiatu:_____
- Konortea galdu:_____
- Urradura:_____

LIVEWORKSHEETS